



Martxoak 8

IKASLEEKIN LANTZEKO AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAREN DOSSIERRA



Sarrera

Aiaraldea Ekintzen Faktoriak hezkuntza komunitatean lantzeko unitate didaktikoa osatu du. Helburua jendartearen kontzientziazioa da, emakumeen* nazioarteko egunaren testuinguruan, berdintasunetik harago zapalkuntzak ikusaraztea eta feminismoan jendartea heztea. Munduko biztanleriaren erdia dago zapalduta; emakume* izate hutsagatik. Gainera zapalkuntza hauek interseksionalak dira, klase, arraza, kolonialismoa, edo bestelako faktore batzuegatik emakume asko zapalkuntza anitzak jasaten dituzte.

Emakumeen* Nazioarteko Eguna dela-eta, asko dira herrietan antolatutako ekintzak. Emakumeen lanak aitortzeaz gain, beharrezkoa iruditzen zaigu zaintza eta balio hezitzaileak erdigunera ekartzea. Zentzu horretan, ondorengo unitate didaktikoak haur, gazte, familia edota hezitzaileengan eragitea du helburu. Hezkuntzan, kontsumoan, lan munduan zein zaintzan du eragina egungo sistema ereduak; hots, heteropatriarkatuak. Ikuspegi androzentristatik -gizonezkoen gogoeta, behar eta botere guneetatik- eraiki eta antolatu dira egungo hezkuntza sistema, kontsumo ereduak, lan mundua edota zaintza beharrak; besteak beste. Nola mamitzen dira zapalkuntzak egunerokotasunean? Zein da inguruan dauden emakume* anitzen errealitatea? Zer gertatuko litzateke emakumeek* planto egingo balute?

Aiaraldea -Euskal Herria edo mundua- zapalkuntzarik gabekoa izate bidean, garrantzitsua deritzogu adin tarte ezberdinetan jarraian planteatzen diren ariketa eta gogoetetan murgiltzeari.


Helburuak

Unitate didaktikoaren helburua sinple bezain konplexua, jendartean duen dimentsioagatik, bizitzak erdigunera ekartzea da. Ezbairik gabe, zaintza lanek sekulako eragina dute egunerokoan. Mendeetan zehar, gaur arte, emakumeei* egotzi zaizkie zaintza lanak. Etxeko langileen beharra ez da aitortu oraintsu arte, ezta emakume* baserritar, pentsionista, gazte, migratzaile zein aniztasun funtzionala dutenena ere. Ondorengo ariketen bidez errealitate eta zapalkuntza ezberdinei hitza jartzea bilatzen du Aiaraldea Ekintzen Faktoriak.

Egitasmo hau Aiaraldea Ekintzen Faktoriako hezkuntza (Kokoriko) eta feminismo lantaldeko kideen artean garatu da. Bazkide eta boluntarioei esker, hainbat proiektu ditu martxan Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak: Aiaraldea hedabidea, Kokoriko Hezkuntza Faktoria, Komunitateari bideratutako ildoak (Feminismo lan-taldea, Elikadura burujabetzarena...).

Kooperatibari buruzko informazio gehiago jakin nahi baduzu link honetara joan:

<https://aiaraldea.eus/bereziak/aiaraldea-ekintzen-faktoria>



Marko teorikoa



Zergatik da egun markatua martxoaren 8a?

Martxoaren 8 data berezia da askorentzat. Martxoaren 8a Nazio Batuen Asanblada Orokorra ezarri zuen Emakumeen Nazioarteko egun gisa. Jatorriarekiko bertsio anabasa dago. Izan ere, gertaera jakin bati baino, emakumeen borroka egonkor ugariri lotua dago, eremu guztietan ibili baitziren gudan: alor sozialean, politikoa, eta batez ere, laboralean. Zergatik hautatu zen martxoaren 8a orduan? Iraultza Boltxebikearen sarrera izan zen emakumeen gerraren aurkako matxinadagatik. Zehazki, 1917ko martxoaren 8an emakume errusiarrak elikagai eskasiagatik altxatu ziren, urrira arteko iraultza prozesu bati ekinez, zaristen erregimenaren bukaerarekin amaitu zelarik. Horrenbestez, emakumeen nazioarteko eguna ez zuen AEBko oihalgintza fabrika batean jazo zenak eragin. Bertsio horrek dioenez egun hartan, bertako emakume beharginak greban zeuden pairatzen zuten esplotazio laborala salatzeke, enpresan itxita, eta ugazabek su eman zioten eraikinari ehunka emakume bertan errez. Iturriek diotenez gertaera izugarri haiek egiazkoak izan ziren, baina ez ziren martxoaren 8an gertatu, ezta 1857 urtean ere (zenbait tokitan aipatzen denez), baizik 1911ko martxoaren 25ean, New Yorkeko Triangle Shirtwaist fabrian. 2017az geroztik, Greba Feministak markatu du martxoaren 8a, milaka emakume* egin baitzioten greba bidez planto euren eguneroko lanei (ordainduzkoa izan edo ez). Hala, Aiaraldeko zein munduko milaka emakume* atera ziren kalera euren eskubideak aldarrikatzera.

Zer da lana?

Ongizatea eta aberastasuna sortzen duten eta bizitza aurrera ateratzeko baliatzen ditugun jardura guztiak dira lanak, izan ordainduzkoak edo ez. Espazio publikoan edota pribatuan garatzen dira lanak, etxean edota lantokian. Egungo sistemaren logikan, lan produktibotzat hartzen dira espazio publikoko beharrak eta erreproduktibotzat etxekoak (familia edo etxe zaintza). Ikuspegi horren arabera, diru truk egiten dena baino ez da lan produktiboa, hau da, emakumeek* dohainik egiten dituzten lanak erreproduktzioarekin, maitasunarekin eta familiarekin lotzen dira; eta, ondorioz, egin dira, duten balioa kenduz.

Lan banaketa sexuala

Lan banaketa sexuala jendarteko eremu guztietan gertatzen da, botere erlazioaren bitartez eraikitzen da. Horregatik dituzte lan feminizatuek (batez ere emakumeek* egiten dituzten lanek) eskubide, soldata edota errekonozimendu baxuagoak. Esaterako, etxeko langileek ez dute langabezia eskubiderik ez eta pentsio propiorik.

Bizitzak erdigunera

Bizitza sostengarria izateko ardura kolektiboa izan behar da. Hasteko, elkarren beharra dugula aitortu behar dugu, inor ez baita beharrik gabekoa. Injustiziak elkarri lotuta daude: soldatapeko lan feminizatu prekarioak, ordaindu gabeko etxeko lanetan ematen dugun denbora guztia, paperik gabeko etxeko langileen egoera, botere guneetan dauden gizon burgesek bankuaren interesak lehenestea; emakumeen*, bolleraren eta transen aurkako biolentziak, epaitegiek erasotzaileak babestea eta abar. Horrek guztiak erakusten du gure jendartean bizitza batzuk beste batzuk baino balio handiagoa dutela. Hierarkia horiekin amaitu beharra dago. Eraldaketa prozesuak sakona izan behar du, eta etapa zein pertsona guztiak barne hartu behar ditu.

Zaintza

Zaintza lanak deritzegu edozein adineko pertsonen beharrak asetzeko eginkizunari. Urteetan zehar, emakumeengan* utzi da haurrak zein edadetuak zaintzeko ardura. Jakina da sekulako arreta eta denbora eskatzen dutela zeregin horiek. Nagusiki, gainera, ordaindu gabeko lan gehigarria izan da mendeetan zehar zaintzarena. Are, soldatapeko lana izan den kasuetan oso baldintza txarretan izan dira kontratatatuak langileak. Ez da kasualitatea, beraz, zaintza lan horiek sarritan emakume* atzeritarrei egozte.

Aiaraldeen zein hemendik kanpo dugun zaintza eredua emakumeen* -eta bereziki emakume* imigranteen- esplotazioan oinarritzen da. Zaintza eta etxeko lanen ardura sozializatu ezik -hots, gizonak eta egitura publikoek ardura zuzenak hartzen ez badituzte- emakumeen* bizkar geratuko dira lan horiek; lan baldintza txarretan, kasu batzuetan esklabotzara iristeraino.

Zaintza eskubidea izanik, posiblea da beste modu batean antolatzea. Pertsona guztiok eman eta jasotzen ditugu zaintza(k) gure bizitzako fase ezberdinetan, hainbat maila eta intentsitateetan. Etxeko lanak eta zaintza lanak anitzak dira, eta bereizi behar ditugu. Esate baterako, lan batzuk luxuzko zerbitzutzat hartu behar dira (adibidez, egiteko gaitasuna duenari alkandorak plantxatzea). Kalitatezko zaintza jasotzea ezin da bakoitzaren gaitasun ekonomikoaren arabera izan, eta langile zein pertsona guztien eskubideak bermatu behar dira.


Inguruaren azterketa- Zapalketak

Inguruaren azterketa egitean generoari bakarrik erreparatzen badiogu, jendarte honetako zapalketak ez genituzke ondo aztertuko. Inguru ulertzeko begirada interseksional bat egin behar da. Hau da zapalketa ugariak ikusi eta errotik guztiei eragingo dien sistema berri bat planteatu.

Sistema kapitalista heteropatriarkalean bizi garela diogunean, bi hitz horien atzean zapalketa gehienak ageri dira. Sistema kapitalista batean diruak agintzen du, beraz dirua duenari botere eta pribilegio gehiago ematen zaizkio. Hetero hitzak ondo adierazten du gure jendartearen oraindik ere pertsona heterosexualek botere eta eskubide gehiago dituztela homosexualek baino. Eta azkenik patriarkatu hitzak ondo islatzen du gizonezkoak duela botere handiagoa emakumeen* aurrean.

Oro har, gizon txuri, dirudun eta heterosexualari ematen dizkio pribilegio gehien sistemak. Horrek esan nahi du, eskubide berdinak aitortzen zaizkien arren, desberdintasun izugarria dutela emakumeek*; eta are gehiago beste kultura batekoak badira, edo transexualak zein lesbianak. Zentzu horretan, azkenaldian Mugimendu Feministak "emakume*" edo "neska*" subjektuak mahaigaineratu ditu; emakume* sentitzeko modu anitzei ikusgarritasuna emate aldera.

Emakume* batek bizi ahal dituen zapalketak, hortaz, anitzak dira. Feminismoek zapalketa guztiekin bukatzeko sistema berria planteatzen dute, zaintza esparrua erdigunean kokatzen dutena. Feminismoa plurala eta anitza da, mota zein korrante ugari dituelako; bakoitzak eremu batean gehiago sakontzen duelarik. Feminismo ezberdinek, muinean pertsona orok eskubide, betebeharrak eta aukerak berdinak izatea dute oinarritzat.



Sexu-genero sistemak

Genero sistemak dira gizon eta emakumeen* arteko hierarkiak ahalbidetzen dituen jendarte antolaketa; baina, era berean, sexualitate eredu batzuk gailentzen dituenak. Horrela, identitate batzuk eta harreman mota batzuk botere kokapen pribilegiatua dute, beste batzuekin alderatuta. Adibidez, gizonen identitateei atxikitzen zaizkien ezaugarriak (autoritatea, indarra...) edota, oro har, bikote harreman heterosexualak pribilegiatu egiten dira (botere guneetan egonik zein etengabe ikusgarriak eginik).

Sexu genero sistemek mundua ulertzeko aukera ematen digute. Horrenbestez, horietaz hitz egitean ezinbestekoa da sexua eta generoa bere aldetik definitzea.

GENEROA: Eraikuntza kulturalari dagokion kontzeptua da. Emakumezkoei* edo gizonezkoei eraikitzen dizkiguten rol estereotipatuei erreferentzia egiten die. Konstruktua hau sexualitatearen dimentsio sozialean kokatzen da, hau da, ezaugarri biologiko eta psikologikoetan oinarritzen den eraikuntza kulturala da. Laburtuz, generoa "sexu kulturala" dela adierazi dezakegu eta oinarrian dauden emakumeen* eta gizonen arteko diferentziak desigualdade bihurtzen ditu ez direlako berdin baloratzen. Eraikuntza kultural honen bitartez emakume eta gizonei kultura eta gizarte mailan gaitasun, rol eta jarrera batzuk esleitzen zaizkie estruktura hierarkizatu bat osatuz.

Jendartean, boterean gizonen hegemonia eta emakumeek* gizonekiko menpekotasun egoera mantentzeko, emakume* eta gizonei sexuan oinarrituriko rol desberdinak esleitzen zaizkie (ardurak, lanak eta herritar moduan emakumeek* eta gizonek ditugun eskubideekiko aukera desberdinei buruz ari gara).

Gure genero sozializazio prozesuan zehar, femenino eta maskulino bezala onartuak dauden jarrera, jokaera eta zereginak barneratu eta erabiltzen ditugu. Jarrera, jokaera eta zeregin hauek arau sozialak jarraitzen badituzte egokiak kontsideratuko dira, eta gizartean onartuagoak izango gara. Aldiz, ez baditugu arau sozialak jarraitzen kritikatu eta epaituko gaituzte eta jokabide desagokia eduki dugula ulertuko da, ondorioz, kontrako erreakzioak jasoko ditugu.

Jarrera, jokaera eta zeregin hauek genero rolak dira eta emakume eta gizonen lan banaketarekin erlazio zuzena dute, besteak beste. Kontrakoak edo osagarriak izan ohi dira eta balorazio sozial desberdina jasotzen dute; honekin batera, emakume eta gizonen artean botere harreman hierarkizatuak eraikitzea dakar.

Generoa dinamikoa da, garai eta kulturaren arabera aldatzen da: ezberdina da Keniako emakumea* izatea edo Euskal Herrikoa, gure aitona-amonen garaiko emakume-gizonak edota gaur egungoak aldatuko diren bezala. Horrela, generoak testuinguru soziokulturalaren baitan gizon eta emakume* izateko baldintzak eta arauak ezartzen ditu. Nolabait esatearren: jendarteak ezarritako identitateak direla. Mendebaldeko kulturaren, gorputza ulertzeko moduetan medikuntzak duen indarragatik, generoa kategoria biologikoekin lotzen dugu, sexuarekin, hain zuzen. Sarritan, oinarri biologikoen ondorio bezala ulertu izan da generoa.

SEXUA: Jaiotzez ezaugarri biologiko konkretu batzuekin jaiotzen gara, eta hauei egiten die erreferentzia sexuak. Beraz jaiotzetik ditugun ezaugarri biologikoen arabera sexua arrak edo emeak izango gara; “neskak” edota “mutilak”.

Bi sexuez gain, ordea, badaude pertsona batzuk jaiotzez ez direnak ez ar ezta eme. Pertsona hauek intersexualak dira eta ez dituzte ar baten edo eme baten genital definituak.

Munduan orokorrean sexu batekin jaiotzerakoan, zuzenean eta hasiera hasieratik norberaren sexuaren arabera genero rola ezarri egiten dizkigute. Gainera genero rol hauek botere harreman batean kokaturik daude, eta emakumezkoei* bideratzen zaizkien genero rola gizonezkoenak baino garrantzia txikiagoa dute jendartean.

Generoarekin pertsona bati aukerak, rola, espektatibak eta esperotako portaera jarraibideak ezarri egiten zaizkio.

Beraz Simone de Beauvoirrek esaten zuen moduan “emakume* ez da jaiotzen egin egiten da”. Hala, rol estereotipatu ezberdinak ezartzen zaizkio emakume* eta gizonari, herrialde gehienetan horrela banatzen delarik:

Rol erreproduktiboa edo zaintza lanak emakumezkoei* egozten zaizkie eta rol produktiboak gizonezkoei. Beraz, emakumezkoak* eremu pribatuan kokatu izan dira historikoki eta gizonezkoak publikoan.

Hauek dira ezartzen dizkiguten rol estereotipatu horietako batzuk:

EMAKUMEZKOAREN* ROLAK

- * Naturaltasuna
- * Samurtasuna
- * Biguntasuna
- * Ahultasuna
- * Intuizioa
- * Arinkeria
- * Sumisioa
- * Pasibitatea
- * Edertasuna
- * Gozotasuna
- * Leuntasuna
- * Dependentsia

GIZONEZKOAREN ROLAK

- * Arrazoia
- * Biolentzia
- * Indarra
- * Inteligentzia
- * Autoritatea
- * Sakontasuna
- * Nagusitasuna
- * Aktibitatea
- * Arduragabekeria
- * Zakarkeria
- * Gogortasuna
- * Independentzia

Hau guztia zelan egiten da?

Jaio eta gutxira hasten den prozesua da. Pertsona bakoitzari izen bat jarri egiten zaio eta izenarekin alde batean edo bestean kokatzen da pertsona. Konprobaturik dago espektatiba ezberdinak ezartzen dizkiegula emakumezkoei* eta gizonezkoei, trataera ezberdina izaten dugula batekin zein bestearekin: emakumeak leunki tratatuak dira eta gizonak zabarkeria handiagoarekin. Koloreekin ere determinatzen da -arrosa eta urdinaren munduak- edota opariekin. Baina batez ere, pertsona bakoitzarengandik espero denetik eraikitzen da generoa.

Genero sistemak -edo horrek ahalbidetzen dituen botere harremanak- erakunde ezberdinen bidez sostengatzen dira: erlijioa, hezkuntza, familia, legeak, osasun sistema, lan merkatua, zientzia, politika publikoak, hedabideak, estatua, hizkuntza... Horiek guztiak elkarrekin kateatuta daude, denek osatzen baitute gure jendartea. Erakunde horiek balio eta ideia zehatzak sortzen dituzte gizon eta emakume izateko moduei begira; era berean, mundu sinbolikoa sustatuz. Horrela, esaterako, familian pentsatzean umedun bikote heterosexuala datorkigu burura, bestelako familia ereduak baztertuz.

Erakunde horiek balio eta ideien transmisioan laguntzen dute, eta pertsonak horien arabera sozializatzen gara: identitate batzuk ikasiz, eta beste batzuk baztertuz. Hori dela-eta, generoaren araberrako sozializazio prozesuen ondorio dira emakume eta gizonen jokatzeko moduen aldaerak. Haurtzaroa garai oparoa da ideia horiek guztiak barneratzen hasteko, baina gainerako adinetan ere genero ikasketa horrek jarraitzen du. Jaioberriengan argi ikus daiteke banaketa kolore arrosa eta urdinarekin, eta horiek dakartzaten esanahiekin: adibidez, urdinari lehenesteko eta arrosa gutxiesteko joera. Edota haurtzaroan ere soma dezakegu gurasoen joera: alabak gehiago babesten dira, semeek askatasun gehiago ematen dieten bitartean.

MARTXOAK 8

GREBA FEMINISTA

HETEROPATRIARKATU KAPITALISTARI PLANTO!

GOIZEAN | 12.30


KALEAK HARTU
ESKUALDEKO HERRIETAN

ARRATSALDEAN | 20.00

ESKUALDEKO
MOBILIZAZIOA
URDUÑAKO FORU PLAZATIK

AIARALDEKO MUGIMENDU FEMINISTA

Ikasleekin
lantzeko
dinamikak



Helburuak

Dosier honen helburua, ikasleek euren buruarengan konfiantza bereganatzeaz gain, hauek, erantzukizuna, elkarlana, gainontzekoekiko errespetua eta zaintza garatzea ere bada. Horrez gain, kaiera honek, hezitzaile eta familientzat, hausnarketa batzuk egiteko baliabide praktikoak luzatzea ere badu helburu.

- Lanaren banaketa sexualaren deseraikitzea
- Zaintza-lanen garrantziaren jabetzea eta hauen berrantolatzea
- Zaintza erdigunean jartzea
- Zaintza lanak egiten dituzten emakumeen* aitortza
- Lan erreproduktiboaren balio politikoaren aitortza
- Zaintzarekin lotutako enpleguei balioa ematea
- Estereotipo eta aurreiritzi sexistak desmuntatzea
- Lan produktibo eta erreproduktiboaren inguruko bereizketa
- Autozaintzaren inguruko hausnarketa abiatzea

HAUR HEZKUNTZA

1. DINAMIKA: Zaintzaren marrazkia

Irudien bitartez landuko dugu familian zaintza lanez nor arduratzen den.

Haurrei beraien etxe barruan dagoen beraien familiaren irudi bat egitea eskatuko diegu. Behin irudia eginda galdera batzuk luzatuko dizkiegu:

- Non daude familiako kideak?
- Non ematen du denbora gehiago amak? eta aitak?
- Zer egiten du amak etxean aitak egiten ez duena? Eta aitak amak egiten ez duena?
- Nork ematen du denbora gehiago nirekin?
- Gaixorik nagoenean zeinek zaintzen nau?

2 .DINAMIKA: Ginkana ez sexista

Ginkana bat egitea proposatzen dugu. Txoko ezberdinak kokatuko ditugu eta haur guztiei txoko bakoitzetik pasatzea eskatuko diegu. Taldeka egin beharko dute txoko bakoitzeko jolasa. Horrela zaintza lanen inguruan gogoeta egiteaz gain, talde lana eta kooperazioaz hausnartu ahal izango dute.

Txokoetan etxean egiten diren hainbat ekintza gauzatuko dituzte. Jolasean bezala, xedea zaintza lanak partekatu litezkeela konturatzea da, etxean zein eskolan ardura ezberdinak har ditzaketela konturatzea.

Egin daitezkeen txokoak:

- **Arropa tolesteko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Beraien jertse eta arropa ezberdinak.

- **Botoiak josteko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Botoi handiak, artilea, orratz handiak, tela zatiak.

- **Edalontziak garbitzeko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Plastikozko edalontziak, xaboia, estropajoa, ura, 2 palangana.

- **Sukalde txokoa (Pintxo batzuk egin)**

BEHARREZKO MATERIALA: Txaka, atuna, york urdaiazpikoa, maionesa, ogia, labanak, koilarak.

- **Panpinak janzteko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Panpinak, panpinen arropa ezberdinak.

- **Erratza pasatzeko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Erratza, paper zatiak, biltzeko pala.

- **Kristalak garbitzeko txokoa**

BEHARREZKO MATERIALA: Tela zahar bat, kristala garbitzeko produktua (kristalak gelako leihoak izan daitezke).

3. DINAMIKA: Etxean egiteko hausnarketa

Hurrengo ariketa etxean egiteko izango da, haur bakoitzak ardura ezberdinak hartzea izango da helburua. Horretarako beraiek hartu ditzaketen ardurak zehaztuko ditugu, eta betetzen ez dituztenean ere hala adierazteko eskatuko diegu; epaitzeko helbururik gabe, konturatzeko baliagarria delakoan. Zeregin bakoitza noren laguntzarekin burutu duten jarri beharko dute. Ariketa hau bi astez luzatu daiteke, eta gero eskolan emaitzak landu, zaintza lanen aitortza egiten eta horiek gehienbat egiten dituzten emakumeen aldarria eginez. izan daitezke).

Hau da bete beharreko taula:

ARDURA	NIK EGIN DUT	EZ DUT NIK EGIN	NOREN LAGUNTZAREKIN EGIN DUT

Haurrek etxeko lanetan parte hartu dezaten eta elkar erantzukizunaren garrantziaz jabetu daitezen, oso garrantzitsua da hasiera batetik, hau da, etxean laguntzeko ahalmena dutenetik, ardura txikiak hartzen joatea. Gurasoen eta senitartekoen laguntzaz autonomia hori lantzeko, ondoko orientabideak luzatzen dizkizuegu:

2-3 urteko haurrentzako etxeko lanak

- Jostailuak batu eta beren tokian jartzea, nagusi baten laguntzaz
- Liburuak eta aldizkariak batu eta artxibagailuan sartzea
- Etxea eskobatzeta
- Mahai gainean mahai zapiak, platerak eta mahai tresnak jartzea (ez da zertan era egokian izan behar)
- Bazkal ostean, bere txokoa txukundu eta bere platera sukaldara eramatea
- Gosari orduan erabaki errazak hartzen ikastea, jateko bi aukera ematea kasu.
- Komuna erabiltzen ikasteko prozesuan, parte hartze aktiboa izatea
- Berak bakarrik arropa jarri eta erantztea
- Erosketak egin eta gero janaria beheko apaletan gordetzeko lanean parte hartzea.
- Menuaren plangintzan laguntzea
- Etxeko animaliei jaten ematen laguntzea
- Birziklatzeko gauzen sailkapena egitea
- Jakak eta jertseak beheko esekitokian eskegitzea

4-5 urteko haurrentzako etxeko lanak

- Mahaia jartzea
- Erosketak gordetzea
- Erosketetarako zerrenda egiten eta supermerkatuko karroan gauzak sartzen laguntzea
- Etxeko animaliei maiztasunez jaten ematea
- Lorategiko edo baratzeako mantentze lanekin laguntzea
- Xurgagailua pasatzen, zorua garbitzen eta zapiarekin hautsa kentzen laguntzea
- Gurasoei, jolasten ari denean, non dagoen esatea.
- Bere jertsea edo motxila armairuan sartu eta eskegitzea
- Jostailuak erabili ostean, bere lekuan gordetzea
- Bere logelako zorua garbitzen laguntzea

5 urteko haurrentzako etxeko lanak

- Erosketetan eta hauen planifikazioan laguntzea.
- Gosari errazak prestatzea
- Bazkal ondoren mahaia batu eta garbitzea
- Otorduetan mahaia prestatzea, gauza bakoitza bere tokian jarritz
- Bere ohea egitea eta logela txukuntzea, nagusi baten gidaritzapean
- Pertsona nagusi baten laguntzarekin, jantziko duen arropa aukeratzea eta bere kabuz janztea
- Arropa zikina garbigailurako otzaran sartzea
- Arropa garbia armairuan sartzea
- Etxeko telefonoari era egokian erantzutea
- Kotxea garbitzen laguntzea
- Sastar poltsak botatzea (pisuaren arabera)
- Etxeko animaliei jaten ematea
- Zapatak lotzen ikastea
- Bere itxura zaintzean parte hartzea (ilea orraztu...)
- Ontzi garbigailua husten laguntzea

6 urteko haurrentzako etxeko lanak

- Jantziko duen arropa eguraldiaren eta egoera berezien arabera aukeratzea: mendi irteerak, euria, hondartza...
- Etxeko landareak ureztatzea
- Barazkiak zuritzea
- Pertsona nagusi baten laguntzaz, errezeta errazak prestatzea (arrautza frijituak, pizzak, entsaladak, pastelak...)
- Hurrengo egunean eskolara eramango duen ogitartekoa prestatzea
- Bere arropa armairuan eskegitzea
- Etxeko animaliak paseatzera ateratzea
- Soinean daramatzan zapatak lotzea

DINAMIKA OSAGARRIAK

“BOST MINUTUKO LASAIALDIA” ipuina irakurri eta ipuinak adierazten diguna marrazki batean adierazi.

LEHEN HEZKUNTZA

I. DINAMIKA: Zaintza lanen azterketa

Hurrengo ariketa etxean egiteko izango da, haur bakoitzak ardura ezberdinak hartzea izango da helburua. Horretarako beraiek hartu ditzaketen ardurak zehaztuko ditugu, eta betetzen ez dituztenean ere hala adierazteko eskatuko diegu; epaitzeko helbururik gabe, konturatzeko baliagarria delakoan. Zeregin bakoitza noren laguntzarekin burutu duten jarri beharko dute. Ariketa hau bi astez luzatu daiteke, eta gero eskolan emaitzak landu, zaintza lanen aitortza egiten eta horiek gehienbat egiten dituzten emakumeen aldarria eginez.

Bi taulak beteta ditugunean konparatu egingo ditugu eta tauletatik ateratako datuen ondorioan aterako ditugu:

- Diferentziarik al dago errealitatea eta norberak uste duenarekin?
- Nork ematen du denbora gehiago etxeko lanak egiten? Zergatik?
- Zeren arabera uste duzue egiten dela etxeko lanen banaketa?
- Zein lani ematen diogu garrantzi handiagoa?
- Zer gertatuko litzateke zaintza lanak egingo ez balira?
- Lanbide ezberdinak dituzte emakumezkoek eta gizonezkoek?
- Etxean zergatik ez dugu denek ardura berdina hartzen?
- Zaintza lanak ordaindukoak dira?
- Etxeko lanak guztion artean banatzen baditugu, zer daukagu ikasteko?

TAULA

Zeinek egiten ditu zaintza lanak?

* Hurrengo orrialdeko taula adibide bat besterik ez da. Taularen goiko partean haur bakoitzak bere familia eredua jarri behar du. Etxean bizi diren familiar beste, zutabe jarri. (Adibidez, ama, amama eta ni bizi bagara 3 zutabbe bakarrik izango ditu taulak.)



	AMA	AMA	AHIZPA	NEBA	NI	BESTE NORBAITEK
Zer lanbide edo ikasketa ditu bakoitzak?						
Etxea garbi edo txukun mantendu						
Jatorduak prestatu						
Zer erosi erabaki						
Eguneroko erosketak egin						
Erosketa inportanteak egin						
Kotxea gidatu						
Etxeko konponketak						
Haurraren arropa aukeratu eta erosi						
Arropa eskegi						
Elektrizitate konponketak						
Hurgintza konponketak						
Altzariak garbitu						
Josi						
Platerak garbitu						
Garbigailua jarri						
Ohea egin						
Arropa lisatu						
Mahaia ipini						
Komuna garbitu						
Haurrak edo edadetuak zaindu						
Hautsa kendu						
Gaixoak zaindu erratza eta fregona pasa						

2. DINAMIKA: Termometroaren dinamika

Hezitzailea gelaren erdian kokatuko da, eta umeei lerro batean -bere aurrean- jartzeko eskatuko die. Esaldi batzuk botako dizkiegu hurrei, eta adostasunaren arabera -alde edo kontra badaude- gelaren alde batean edo bestean kokatu beharko dira (adibidez, leihoen gunean edo paretan). Esaldia botata eta pertsonak alde batean edo bestean kokatuta, euren argudioak azaldu beharko dituzte, zergatik jarri diren hor. Eztabaida eman ahala, edozein momentutan, aldez mugitu daitezke kideak, konbentzitu egin badituzte.

Honako esaldiak landu litezke:

- Gizonezkoek Euskal Herrian normaltasunez gona eraman dezakete
- Zaintzea emakumezkoen* berezko ezaugarria da
- Emakumeei* jolastokian gehiago gustatzen zaie izkinetan hitz egiten egotea
- Futbol zelaia futbolera jolasteko da, beste ekintzak beste leku batean egin behar dira
- Nire burua zaintzea oso garrantzitsua da
- Etxeko guztiok denbora berdina ematen dugu etxeko lanak egiten
- Etxearen garbiketa, erosketak egitea... “emakumeen* lanak” dira, “gizonezkoen lanak” dira etxeko konponketak.
- Lan ordaindua, lan ez ordaindua baino garrantzitsuagoa da.
- Pertsonak “Txip” berezi batekin jaiotzen gara lan espezifiko batzuk egiteko, hau da, emakume* izateagatik etxeko lanak gizonek baino hobeto egiten dituzte.
- Etxeko lanak egitea bertan bizi garen guztion zeregina da. Denon artean burutu behar ditugu, bakoitzak ahal dugun neurrian

3. DINAMIKA: Etxean egiteko hausnarketa

Hurrengo ariketa etxean egiteko da, haur bakoitzak ardura ezberdinak hartzea izango da helburua. Horretarako beraiek hartu ditzaketen ardurak zehaztuko ditugu, eta beraiek ez badira izan aste horretan ekintzaren egileak, zeinek hartu duen ardura hori adierazi beharko dute. Bestetik noren laguntzarekin bete duten jarri beharko dute. Ariketa hau bi astez luzatu daiteke; eta gero eskolan emaitzak landu daitezke, zaintza lanen aitortza egiten eta horiek gehienbat egiten dituzten emakumeen aldarria eginez.

Hau da bete beharreko taula:

ARDURA	NIK EGIN DUT	EZ DUT NIK EGIN	NOREN LAGUNTZAREKIN EGIN DUT

Gure haurrek etxeko lanetan parte hartu dezaten eta elkar erantzukizunaren garrantziaz jabetu daitezen, oso garrantzitsua da hasiera batetik, hau da, etxean laguntzeko ahalmena dutenetik, ardura txikiak hartzen joatea. Gurasoen eta senitartekoen laguntzaz autonomia hori lantzeko, ondoko orientabideak luzatzen dizkizuegu:

7-8-9 urteko haurrentzako etxeko lanak

- | | |
|---|--|
| <ul style="list-style-type: none">• Laguntza barik duxatu edo bainatzea• Bere armairu eta kaxoiak txukun mantentzea• Bere arropa erostea, pertsona nagusi baten zaintzarekin, baina laguntza barik• Etxera heltzean, etxeko arropak janzte, inork egin behar duela esan gabe• Etxeko lanak egitea, inork egin behar duela esan gabe• Bere arropa tolestea eta armairuan sartzea, inolako laguntzarik gabe• Etxeko animaliek utzitako nahaspila batzea | <ul style="list-style-type: none">• Errezeta errazak irakurtzea eta hauek prestatzen laguntzea• Etxeko konponketa txikietan laguntzea• Ahizpa, neba edo anai txikiei jaten ematen laguntzea• Etxeko txikiak bainatzen laguntzea• Arropa zikina garbigailuan sartzea• Etxeko tresna elektronikoak erabiltzen jakitea (mikrouhina, txigorgailua...)• Birziklatzeko zaborrak euren tokietan sartzea eta zaborrontzietara botatzea |
|---|--|

10-12 urteko haurrentzako etxeko lanak

- | | |
|---|---|
| <ul style="list-style-type: none">• Bere oheko izarak aldatzea• Garbigailua programatzea eta xaboia botatzea• Ontzi garbigailua laguntzarik gabe betetzea eta batzea• Erosketak zerrendaren arabera egitea• Bere eguneroko ekintzak antolatzea (eskolaz kanpokoak)• Heltzen zaizkion gutunak jaso eta erantzuten jakitea | <ul style="list-style-type: none">• Bere urtebetetzea eta ekimen bereziak antolatzea• Bere buruari oinarritzko lehen sorospenak egitea (urradurak, kolpeak...) |
|---|---|

DINAMIKA OSAGARRIAK:

“URDABURUTARRAK” IPUINA

Ipuina irakurri eta ipuinak adierazten diguna marrazki batean adierazi.

LH 3 ZIKLOAK

“ENEKOREN SOINEKO ARROSA” IPUINA

Ipuina irakurri eta ipuinaren inguruko hausnarketa egin

Hausnarketan lagungarria izan daiteke hurrengo linkean agertzen diren dinamikak:

<http://hezkidetzalarraintzar.blogspot.com/2010/09/material-didaktikoak-euskaraz.html>

GAZTE GUNEAK (DBH, BATXILERGOA, GAZTEEN BESTELAKO GUNEAK)

1. DINAMIKA: Inguruaren azterketa

Inguruaren azterketa bat egitea planteatzen dugu. Bakoitzaren herriko plano bat hartu eta hurrengo aldagaiak kontuan hartuz planoan irudikatu beharko dituzte gazteek honako aldagaiak, kolore ezberdinetako gometxa edo errotulkiekin:

- Zein eremutan daude emakume* gehien? Tabernak, eskola, kultur etxea, antzokia, polikiroldegia, futbol pistak, herriko plaza...
- Zein eremutan daude gizonezko gehien? Tabernak, eskola, kultur etxea, antzokia, polikiroldegia, futbol pistak, herriko plaza...
- Gazteak non biltzen zarete? Leku horietan berdina egiten duzue emakumeek* eta gizonezkoek? Idatzi genero bakoitzak zer nolako ekintza egiten dituen zonalde bakoitzean
- Haurrak non biltzen dira? Leku horietan berdina egiten dute emakumeek* eta gizonezkoek? Idatzi genero bakoitzak zer nolako ekintza egiten dituen zonalde bakoitzean

Planoa ikusita eremu pribatu eta publikoaren arteko hausnarketa eman.

- Zeintzuk erabiltzen dute eremu publikoa gehiago?
- Zein da espazioen erabilpena, zeinek okupatzen du espazio gehien?
- Zer egiten da emakumezkoak* dauden eremuetan eta zer gizonezkoak dauden eremuetan?
- Zergatik uste duzue ematen dira banaketa hauek?

2. DINAMIKA: 30 urte barru...

Gazte bakoitzak 30 urte barru bere burua zelan ikusten duen idatzi behar du. Saiatu anonimoki egiten, kideek ez dezaten jakin zer idatzi duen bakoitzak. Laguntzeko hurrengo parametroak luza litezke:

- Zer lanbide izango duzu?
- Non biziko zara? (Etxearen ezaugarriak)
- Zer egingo duzu zure aisialdian?
- Zenbat izango zarete etxean?
- Norekin biziko zara?

30 urte barruko deskribapen hauek idatzi ondoren, irakasleak testuak irakurri egingo ditu eta emakumezkoenak diren edo gizonezkoenak diren sailkatu beharko dituzte. Saioaren amaieran ondorengo gogoeta sustatuko da.

- Zergatik egin da sailkapen hori?
- Espektatibetan aldea dago generoaren arabera?
- Lanbideei erreparatuz, zerbaitek harritu al zaituzte?
- Emakumezkoen* lanbideak zaintza lanetara bideratuta daude? (Erizaina, irakaslea...)
- Gizonezkoen lanbideak lan produktibora bideratuak daude? (Ingeneritza, zuzendariak, kirolariak...)
- Aisialdian ezberdintasunak al daude gizon eta emakumezkoen* artean?
- Familia ereduaren ezberdintasunak daude gizon eta emakumezkoen* artean?

ARIKETA OSAGARRIAK

Bideoak

Genero rolak lantzeko:

“Caricatura de los roles de genero”

<https://www.youtube.com/watch?v=GwQ4Ngc9GIg>

“Vestido nuevo”

<https://www.youtube.com/watch?v=LVdfnQPUYLY>

“Iris segundo”

<https://vimeo.com/12802513>

“Princelandia en directo en Canal Sur TV”

<https://www.youtube.com/watch?v=azA7herSSPO>

“Sirenito - una historia para pensar”

<https://www.youtube.com/watch?v=Ddm3fjDPo1M>

“Always #LikeAGirl (subtitulado español) corre como una niña”

<https://www.youtube.com/watch?v=pQishDaKLdM>

Laneko zapalkuntzak lantzeko:

“Recursos humanos”

https://www.youtube.com/watch?v=n_jJ2ZRBeus

Dosier hau Aiaraldea Ekintzen Faktoriaren Feminismo ildoarekin batera garatu da, eskerrak eman nahi dizkiegu modu boluntarioan parte hartu duten orori. Zuen ikastetxean edo herrian Martxoak 8aren inguruko dinamizazioak kontratatzeko edo dossier hau irakasle, familia zein ikasleekin gehiago garatzeko jarri kokoriko Hezkuntza Faktoriarekin harremanetan.

ARITZ LILI LEKANDA


693 85 53 12

hezkuntza@aiaraldea.eus

AIARALDEA EKINTZEN FAKTORIAK

**Martxoaren 8ko Greba
Feministarekin bat egiten du.**

HETEROPATRIARKATU
KAPITALISTARI planto!



Martxoaren 8an emakume*, trans eta bollerok lan guztiak -soldatapeko zein doakoak- egiteari utzi eta kaleak hartuko ditugu. Greba feministaren bidez bizitzako esparru guztietan indarkeriari, parekidetasun ezari, prekarietateari, sexualitate eredu hegemonikoei, lanen sexuaren arabera banaketari, kontsumo ereduari, familia patriarkalari, jakintzen hierarkizazioari, arrazakeriari, edertasun kanonari eta zapalkuntza guztiei aurre egitera animatzen zaitugu.

- Emakumeok* gaude deituak grebara, baina gizona bazara eta greba babestu nahi baduzu, lehentasuna zaintza lanez arduratzea da, eta ez mobilizazioetan parte hartzea.
- Gizonezkoa bazara hauek dira zure zereginak greba feministan:
- Aita bazara: seme-alabez arduratu, eztabaida sustatu, ikasle greba ahalbidetu.
- Laguna bazara: lagunen seme-alabak zaindu ditzakezu.
- Lankidea bazara: Lantokian emakumeon* greba zabaldu, babestu edo zerbitzu minimoak egin, baita eguneko soldata mugimendu feministari eman edo lantokian erresistentzia kutxa antolatu.
- Enpresako nagusia bazara: enpresa itxi eta zaintza kolektiborako espazioa ireki dezakezu (beharrezkoa bada)
- ikaslea/irakaslea bazara: Eskolara joango ez diren emakume* ikaskideak eta irakasleen lanuztea babestu, eta eskolak zaintza komunitarioko espazio bilakatu ditzakezu.
- Familiar/elkarbizitza taldean/inguru afektiboan: zaintza behar duenik badago, hasi egun horretatik aurrera ohituraz emakumeok* betetzen dugun lan horretaz arduratzen.
- Zaintza komunitariorako espazioak autonomoki sortu (ardura gizonak hartu behar dute, ez dira emakumeon* laguntzaile izan behar)
- M8rako antolatzen diren bazkari herrikoietan e.a. lana egiteko zure burua eskaini.
- Emakume* batekin harreman sexu-afektiborik baduzu: martxoaren 8an kalean egoteko behar duen laguntza emaitu.
- Ez kontsumitu: Batu kontsumo grebara.
- Grebaren aurretik: Beste gizon batzuekin baitu zaitezke, maskulinitatearen inguruan elkarrekin hausnartzeko, lan pertsonala eta kolektiboa egiteko, zuen pribilegioez kontzientzia hartzeko eta menderakuntzarik gabeko jendartearen lortzeko bidean pausoak emateko.

MARTXOAK 8 GREBA FEMINISTA

Kapitalismo heteropatriarkalari planto!!

BIZITZAK ERDIGUNERA